

Larrepetit

Irati Jimenez



Ogi minez

Lehen lauogeita hemeretzi zentimotan erosten nuen, orain euroa eta berrogeita hamar kostatzen da. Esnea bihurtu da urre zuri, amen. Miraria da! *Emaguztu eguneroko ogia* egiten da otoi, baina zenbat ordainduta esaten ez denez, hamabost zentimo igo dute dudarik gabe bedeinkatuta etorri den ogi santua. Amen.

Ez dakit zenbatean dagoen inflazio ofiziala. Baina inflazioak erostera doazenen izerdia benetan neurtuko balu, altu legoke, igo eta igo, tantaz tanta. Penitenteen antzera joaten gara erosketak ordaintzera. Ogiaren eta esnearen eta euroaren mirariaren lekuko gara. Hogei euro hiru milatik gora pezeta dira, baina bi milarekin erosten zena ordaintzeko baino ez dute balio. Hogeita hamar euro bost mila pezeta dira, baina hiru milaren mesedea baino ez digute ekartzen. Miraria. Amen!

Nola ote den posible halakorik, hori ez dakigu. Ekonominan sinistu behar dugu, itsu-itsuan. Nola hirutasun santuan, halaxe makrozein bakieta ere. Amen-amen. Sinistu egin behar dugu inflazioaren datu ofizialean, eta sinistu egin behar dugu gero eta hobeto bizi garela, eta sinistu ez direla espekulatzaileak ekonomia zuzentzen dutenak, ekonomialariak baizik. Andre eta gizon argi eta jantziak, ondo dakitenak gure dirua gure izerdia dela eta gure odola ere badela. Sinistu egin behar dugu, ezinbestean. Eta fedez puzturik erosketak egin behar ditugu eguneroko, izerdi patsetan, ahalegnarekin larri.

Ogi minez. Esne negarretan.

Hemeroteka

El Diario Vasco
Sekretua

Denok jakin nahi genuke zein den zorientasunaren sekretua, nahiz eta guztiok dakigun zorientasu izatea oso gauza subjektibo eta pertsonala dela.

Tira, kontua da azken boladan liburu salduenen zerrendan sartu dela *Sekretua* deitzen den bat. Bertan, itxuraz, arrakasta lortzeko giltza dator eta badirudi Hollywoodeko izarrek ere irakurri dutela.

Onartzen dut liburu-dendara jo nuela *Sekretua*-ren bila.

Bista-bistan zegoen. Sekretua ez da apaletan gordeta dagoen liburua, begi bistan eta dozenaka aletan zenbaiten diren tontorretan agertzen da. Ikusgai, tentagarri, eskuragarri. Bada, liburu haietako bat hartu nuen eta, bitxia, berez liburu batek izaten duen neurria baino txikiagoa da. Hasiara batean «benetak» liburuaren aurre-rapen bat edo izango zela pentsatu nuen baina laster oharitu nintzen ezetz, zorientasunaren sekretua eskuratu neukan liburu txiki hartan zegoen laburbildua. Eta laburbildua diot ze errezeta-liburu baten antza dauka.

Hura desilusioa! Pasarte eta esaldi laburretan banatuta, dirua erakartzeko, maitasuna lortzeko eta beste hainbat kontzeptu zeureganatzeko historian zehar esan diren zenbait «harribitx» biltzen ditu liburuak. Zaharra berri.

Auto-laguntza liburu bat Coelhoren. Bucayren ipuinen, Rojas Marcosen teorien edo Gaglioren parabolen iduloko bat gehiago.

Desilusionatuta, apaletan sartu nuen liburua. Han agertzen diren esaldi gehienak ezagunak nituen eta zorientasunaren errezeta egiteko osagaiak zein diren neuk ere badakit honez gero.

Gainera, erabat zorientatu izango bagina... zeren bila pasako genuke bizitza? ■ JASONE OSORIO

Oscar Wilde dela eta

Berriki Oscar Wilderen *De profundis* idazlan gogoangarria Txalaparta argitaletxearen eskutik euskarazko bertsiotan argitaratzeko atsegina izan dut. Txalaparta Mikel Soto editoreak, lehenago Gari Berasaluzek eta Eider Rodriguezek egin izan duten bezala, maitasun handiz zaindu du edizioa eta, egiaz dio, poz handia eman dit liburu honen edizioak, Mikel Soto jaunak esan ohi duena egia den arren, hau da, liburu ororen jaiotza dela ospatzeko albiste pozgarria.

Lerro hauen bidez, ordea, *De profundis*-en aurkezpenean esandako informazioa errepikatu nahi dut, hainbat komunikabideetan gaizki adierazita argitaratu baita. Barkamena eskatu nahi diet, ezer baino lehen, bertan izan ziren kazetariak, ez bainuen —ikusten denez— argi adierazi esan nahi nuen. Bolo-bolo dabil paperezko komunikabideetan eta Interneten, ni Oscar Wilderen *W.H. Jaanen erretratu* eta *Apaiza eta elizmutila* idazlanak euskarazten ari naizela eta, bestetik, Felipe Juaristik eta biok *Oscar Wilde euskaraz. 1927-2007* antologia lana liburu egin dugula. Nire ustez, esan nuen eta da apururiko bi liburu horiek itzuliak ditudala eta udazken honetan aterako direla Hiria argitaletxearen eskutik. Eta, bigarrenik esan nuen, Felipe Juaristik antologia lan horretan lagundu egin zidala hainbat materialen berri emanez. F. Juaristik aurkezpenean bertan zegoelako aipatu nuen haren izena. Ez litzateke zuzena izango zeregin horretan Juaristi jauna soilik aipatzea, beste hainbatek ere lagundu baitzuten antologia hori zuzen osatu ahal izateko. Hauek dira: Agurtzane Duce, Mari Eli Ituarte, Mitzel Murua, Gabriel Piedra, Iñaki Mendiguren, Antton Olano, Bittor Hidalgo eta Inazio Mujika. Nire eskerrik zintzoenak berreisi nahi dizkiek guztiak, txoko honetatik.

■ Aitor Arana, Argentea

Salaketa

Agur adiskideok:

Euskaldunok, honen luzaz eta honen lotsagabeki, ukatuak eta zafratuak izan ondoren, geure eskubideak eskatzeko ohitura ere galdu dugu.

Eta astelehenean Donostian gertatu zitzaizana kontatuko dizuet.

«Udazkeneko festak» direla-ta, Igeldoraino hurbildu naiz.

Eta Behatokiaren aurrean dagoen Etxenagusi jatetxean sartu naiz (Aita Orkolaga 47). Eta tortilla pintxo bat eta ardo bat eskatu dut.

«¿Cómo?» galdetu dit zerbitzariak. Harriiduraz bezala, edo sanskritoz hitz egin banio bezala.

«No le entiendo» erantsi di.

Espainieraz eskatu diot horretara, eta makailubokata bat ekarri dit, baita ardoa ere; nahiz nik pintxoak eskatu.

«¿Me puedes dar una Hoja de Reclamaciones? Si, de esas que teméis anunciadas ahí, encima de las botellas.»

Guztiz harrituta begiratu dit. Barrura sartu, eta minutu batzuk pasata anderre bat ateratu:

«Zertarako nahi duzu erreklamazio orria?» — euskaraz galdetuz.

—Protesta bat egiteko.

—Zergatik?

—Igeldoko taberna honetan euskaraz egiterik ez dagoelako.

—Ez da horregatik izango?

—Horregatik Euskal Herrian gaude.

Gogoeita historiko bat egin dit: «gu ere deserriari ibili ginen lehen, eta ongi hartuak izatea eskertzen genuen».

—Guk ez genuen euskara inposatzen; baina guri Igeldon inposatzen zaigu espainiera... Tira, emadazu erreklamazio orri hori.

Efreaklamazio orria ez. Eta orduan festetako programa papertxo bat hartu, eta honelako zer-bait idatzi dut: «Igeldo ez da Vegaoepedilla de Corneja. Eta euskaraz egin nahi izan dut». Han utzi, eta atera egin naiz.

Esango nuke gero eta maizago gertatzen zaizkigula honelakoak. Donostiako Parte Zaharrean, esate baterako, ezin da inon euskaraz egin praktikan. Gero eta zerbitzari espainieratu gehiago dago bazter guztietan, eta, *de facto*, espainiera inposatzen zaigu behin eta berri.

Taberna ez da organismo publiko bat. Badakit. Ez dute obligaziorik, legez.

Baina sintoma bat da. Adarra jotzen digute dismularik batere gabe. Konturatu dira euskararen alorrean sekulako fartsa dagoela, eta hau Espainia dela guttiak behera.

Uste dut badela garaia erantzuten hasteko. Salaketak egin, edo taberna horiek bertan behera utzita, CRIDA katalanekoek eginen zuten bezala.

Eskutitz hau salaketa ildo horretan sartzen da.

■ Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegi*, Donostia

Gure herriko egoerara egokitzen hasita...

Urriaren 28ko igandeko gehigarrian, erdiko bi orrialdeak hartzen dituen argazkitzarrari egindako iruzkinean (oso iradokitzaileak gehienetan, egia esan), *Ardi Xuriak* izenekoan, Suitzan eskuin-muturrak izandako arrakastaren harira, honela idatzi du Xabier Gantzarainek: «Larriena, Mahai Nazionala kartzelan sartu, eta jendea lanera berdin-berdin joaten dela ikustea da. Berdin-berdin hartzen duela autoa goizero, berdin-berdin kafea hartu...». Egokia, aproposa. Baina, ondoren (edo aurretik), honako hau ere idatz zezakeen beste paragrafo batean: «Larriena, gure arteko hainbat herritarrek eguneroko bizari izaten dutela bizkartzaina noranahi joateko; eta jendea, (eta zu eta ni eta gu) lasai antzean, ezer gertatuko ez balitz bezala, gure lanera joan gaitzekela lanera, goizero, ezeren ez inoren beldur izan gabe». Eta, honen antzera, beste hainbat paragrafo etorkinei, behartsu... eskainita.

Gure herriko egoerara egokitzen hasita, zergatik ez hartu errealitatea bere osotasunean, sufri-mendua eta beldurra bere osotasunean, gutarrenari mugatu gabe?

■ Aitor Etxebarria Zamora, Portugalde

ZUZENKETA: Atzoko Biseran, g. umaldarian, Jose Maria Sotien Donostiako gogozan oharri liburuaren izenburua: «Serien un obispo contra ETA» zela agertzen zen. «Serien un obispo contra ETA» agertu beharria. Bestalde, «Moztrak gehigarriko azken orriko argazkian agertzen zen surfaria ez zen Hodei Collazo, Aritz Aranburu baizik».

ZU
ZEN
DARI
ARI

BERRIAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere —españolak barne— baino luzeago izan behar, eta BERRIAK moztzeko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Berria, Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: iritza@berria.info

EAE-ANVK proposatutako Batzorde Nazionala

EAE-ANVK mahai gainean jarri duen Batzorde Nazionala sortzeko egitasmoan, kanpoan utzi dituz alderdi horrek Batzarre, Zutik eta Aralar taldeak, alderdi horien praktika ez ei da eta independentista.

EAE-ANVKo buru den Kepa Bereziartua ezagutzen dut —sarritan topo egin dut harekin Barakaldon—; abertzalea da, inde-

pendentista, dudarik gabe. Nik neuk ez nuke ipiniko inolaz ere Kepa Bereziartuaren abertzale-tasuna zalantzan, ezta burutik pasatu ere. Sarri askotan erakutsi du Bereziartuak, bere konpromisoa eta independentziaren aldeko bere militantzia, zalantzarik ez.

Baina Kepa Bereziartua Aralarreko buru den Patxi Zabaletarekin konparatu behar badut, baten eta bestearen abertzale-tasu-

na neurtu eta nor baino nor jarri behar badut, EAE-ANVKo buruzagiak ez du aukerarik, ez da eta Aralarreko bozeramailearen orpoaren altuerara heltzen.

Biak dira abertzale, biak dira independentista, eta buruzagi biak behar dira herri honetan! Zein txorakerria da Aralarren independentismoari buruzko zalantza hori?

Mesedez!

■ Joseba